

**PROCES-VERBAL DU CONSEIL MUNICIPAL DU  
JEUDI 30 AVRIL 2026**

Le trente avril deux mille vingt-six, à dix-neuf heures, le Conseil Municipal d'UZTARITZE, régulièrement convoqué, le vingt-trois avril deux mille vingt-six, s'est réuni au nombre prescrit par la loi, sous la présidence de Monsieur Piero ROUGET, Maire.

<b>Nombre de conseillers</b> <i>Kontseilari kopurua</i>	
<b>en exercice</b> <i>hautatuak</i>	29
<b>présents</b> <i>hor zirenak</i>	23
<b>procurations</b> <i>ahalordeak</i>	6
<b>votants</b> <i>bozkatu dutenak</i>	29

**Etaient présents / Hor ziren** : M. ROUGET, Mme MARTY-CHALEON, Mme.IDIEDER, M. SERRANO, Mme. GOYHENECHÉ-CEDARRY, M. LASTIRI, Mme ROUMA, M. RUYS, Mme LARRIEU, M. MANGUIN, Mme. OURET-LALANNE, M. SOCODIABEHÉRE, Mme. DRIEUX, M. ESTEINO, Mme. GRUBERT, M. URRUTIA, Mme. ALZUYET, M. ETCHECOPAR, M. SARRATIA, M. CENDRES, M. DARQUY, Mme. GUILTÇOU-LARRONDE, M. DESGROLARD.

**Etaient excusés / Barkatuak** : M. MOULIA (procuration à Mme. MARTY-CHALEON), M. BLAIN jauna (procuration à M. ROUGET jaunari), Mme. JOTHY (procuration à M. MANGUIN jaunari), Mme. INCHAUSPE (procuration à M. SERRANO jaunari), Mme. DI COSTANZO anderea (procuration à M. CENDRES jaunari), Mme. DUFOURCQ-HARISTOY (procuration à M. DESGROLARD jaunari).

**Secrétaire de séance / Bilkurako idazkaria** : Monsieur Jean-Laurent ESTEINO jauna

**2026ko APIRILAREN 30EKO HERRIKO  
BILTZARRAREN AKTA.**

Bi mila eta hogeita seiko apirilaren hogeita hamarrean, arratseko zazpitan, UZTARITZE-ko Herriko biltzarra, bi mila eta hogeita seiko apirilaren hogeita hiruan ohiz gomitatua, bildu da legeak manatu kopuruan, **Piero ROUGET Jaun Auzapezaren** lehendakaritzapean.

**\* APPROBATION A L'UNANIMITE DU PROCES-  
VERBAL DU CONSEIL MUNICIPAL DU 7 AVRIL 2026**

**- AFFAIRES GENERALES**

**1- DESIGNATION DES REPRESENTANTS DE LA  
COLLECTIVITE AU COMITE SOCIAL TERRITORIAL  
(CST)**

Monsieur le Maire présente le rapport suivant :

Vu le Code général des collectivités territoriales ;

Vu le Code général de la fonction publique, notamment ses articles L.251-1 à L.254-6 relatifs aux instances de dialogue social dans la fonction publique territoriale ;

Vu le décret n°2021-571 du 10 mai 2021 relatif aux comités sociaux territoriaux des collectivités territoriales et de leurs établissements publics ;

Vu la délibération n° 9 en date du 22 février 2018 portant création du Comité Social Territorial de la commune d'Uztaritze ;

**\* 2026KO APIRILAREN 7KO HERRI KONTSEILUKO  
AKTAREN ONARPENA AHO BATEZ.**

**\* ARAZO OROKORRAK**

**1- LURRALDE GIZARTE BATZORDEKO ELKARGOKO  
ORDEZKARIEN IZENDATZEA**

Auzapez jaunak gaia aurkeztu du:

Lurralde Elkargoen Kode Nagusia kontuan izanik;

Funtzio Publikoaren Kode Orokorra kontuan izanik, eta, bereziki, lurralde funtzio publikoko elkarriketa sozialerako instantziei buruzko L251-1etik L254-6rako artikulua;

Lurralde elkargoen eta beren egitura publikoen gizarte batzordeei buruzko 2021eko maiatzaren 10eko 2021-571. dekretua kontuan izanik;

Uztaritzeko hiriaren Lurralde Gizarte Batzordea sortu zuen 2018ko otsailaren 22ko 9. deliberamendua kontuan harturik;

Considérant qu'il appartient au Conseil municipal de désigner les représentants de la collectivité appelés à siéger au sein du Comité Social Territorial ;

Considérant que le nombre de représentants titulaires de la collectivité a été fixé à trois titulaires et trois remplaçants.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à la majorité :

**DESIGNE** des représentants titulaires de la collectivité au Comité Social Territorial :

- Monsieur Piero ROUGET
- Madame Sandra IDIEDER
- Monsieur Jean-François RUYS

**DESIGNE** des représentants suppléants :

- Monsieur Jean-Michel SERRANO
- Monsieur Ugo MOULIA
- Monsieur Ximun LASTIRI

Les représentants de la collectivité ainsi désignés siégeront au sein du Comité Social Territorial pour la durée du mandat.

Jakinez Herriko kontseiluari dagokiola Lurralde Gizarte Batzordean sartuko diren ordezkarien izendatzea;

Kontuan harturik elkargo horretan hiru ordezkari titular eta hiru ordezeko ordezkari izanen direla finkatu zela.

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko kontseiluak gehiengoak :

Lurralde Gizarte Batzordeko gure elkargoko ordezkari titular hauen **IZENDATZEN DU**:

- Piero ROUGET jauna
- Sandra IDIEDER anderea
- Jean-François RUYS jauna

Ordezeko ordezkari hauen **IZENDATZEN DU**:

- Jean-Michel SERRANO jauna
- Ugo MOULIA jauna
- Ximun LASTIRI jauna

Izendatu ordezkariak Lurralde Gizarte Batzordean sartuko dira eta agintaldiaren iraupenerako ordezkari izanen dira.

POUR / ALDE : 23

CONTRE / KONTRA : -

ABSTENTIONS / ABSTENZIOAK : 6 (M. CENDRES, Mme DI COSTANZO, M. DARQUY, Mme. GUILTÇOU-LARRONDE, M. DESGROLARD, Mme. DUFOURCQ-HARISTOY)

## 2- DESIGNATION D'UN REPRESENTANT DU CONSEIL MUNICIPAL D'UZTARITZE AU SEIN DE LA SPL PAYS BASQUE

Monsieur le maire présente le rapport suivant :

Vu le Code général des collectivités territoriales,  
Vu les statuts de la Société Publique Locale (SPL) Pays Basque,

La SPL Pays Basque est une société publique locale ayant pour objet la mise en œuvre de projets d'aménagement, de développement économique et de gestion de services publics pour le compte de ses collectivités actionnaires,

**CONSIDÉRANT** qu'il appartient à la commune d'Uztaritze de désigner un représentant appelé à siéger au sein des instances de ladite société,

## 2- UZTARITZEKO HERRIKO KONTSEILUKO ORDEZKARI BATEN IZENDATZEA IPAR EUSKAL HERRIKO SPL SOZIETATEAN SARTZEKO

Auzapez jaunak gaia aurkeztu du:

Lurralde Elkargoen Kode Nagusia kontuan izanik;  
Ipar Euskal Herriko SPL tokiko sozietate publikoaren araudia ikusirik,

Ipar Euskal Herriko SPL tokiko sozietate publikoa da. Akziodun dituen elkargoendako antolamendu, garapen ekonomiko eta zerbitzu publikoen kudeaketa proiektuen obratzea du xede.

**JAKINEZ** Uztaritzeko hiriari dagokiola sozietate horretan sartuko den ordezkariaren izendatzea,

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko kontseiluak gehiengoak :

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à la majorité :

- **DESIGNE** Monsieur Ugo MOULIA membre du Conseil municipal, en qualité de représentant de la commune d'Uztaritze au sein de la SPL Pays Basque.

- Herriko kontseiluko kide den Ugo MOULIA  
**IZENDATZEN DU** Ipar Euskal Herriko SPL sozietatean Uztaritzeko hiriko ordezkari.

POUR / ALDE : 23

CONTRE / KONTRA : -

ABSTENTIONS / ABSTENZIOAK : 6 (M. CENDRES, Mme DI COSTANZO, M. DARQUY, Mme. GUILTÇOU-LARRONDE, M. DESGROLARD, Mme. DUFOURCQ-HARISTOY)

### 3- DESIGNATION D'UN CORRESPONDANT « INCENDIE ET SECOURS »

Monsieur le maire présente le rapport suivant :

Lorsqu'une commune ne dispose pas d'un adjoint au maire ou d'un conseiller municipal chargé des questions de sécurité civile, un décret du 29 juillet prévoit la désignation par le maire d'un correspondant incendie et secours au sein de l'équipe municipale.

Dans le cadre de ses missions d'information et de sensibilisation des habitants et du conseil municipal, le correspondant incendie et secours peut, sous l'autorité du maire :

- participer à l'élaboration et la modification des arrêtés, conventions et documents opérationnels, administratifs et techniques du service local d'incendie et de secours qui relève, le cas échéant, de la commune

- concourir à la mise en œuvre des actions relatives à l'information et à la sensibilisation des habitants de la commune aux risques majeurs et aux mesures de sauvegarde · concourir à la mise en œuvre par la commune de ses obligations de planification et d'information préventive

- concourir à la définition et à la gestion de la défense extérieure contre l'incendie de la commune Il informe périodiquement le conseil municipal des actions qu'il mène dans son domaine de compétence.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **DESIGNE** Monsieur Christian SOCODIABEHERE correspondant « incendie et secours ».

**Ensemble pour Ustaritz** : Nous saluons les compétences de Christian Socodiabehere et nous l'aurions nous-même proposé.

### 3- "SUTEAK ETA SOKORRIAK" ERREFERENTE BATEN IZENDATZEA

Auzapez jaunak gaia aurkeztu du:

Herri batean ez dagoelarik segurtasun zibilerako axuantik edo kontseilaririk, uztailearen 29ko dekretu baten arabera, auzapezak kontseiluko kide bat izendatu behar du sute eta sokorrietarako erreferente. Biztanleen eta herriko kontseiluaren informatzeko eta sensibiltzatzeko eginkizunak dituen, sute eta sokorrietarako erreferenteak hauek egin ditzake, auzapezaren agintaritza pean:

- sute eta sokorrien tokiko zerbitzuaren erabaki, hitzarmen eta dokumentu operazional, administratibo eta teknikoaren apailatzean eta aldaketan parte hartzea, hiriak halako zerbitzurik duelarik

- herriko biztanleak arrisku nagusiei eta babes neurriei buruz informatzea eta sensibiltzatea helburu duten ekintzen gauzatzen laguntzea

- hiriaren laguntzea bere planifikazio eta informazio prebentibo betebeharren betetzen

- hiriaren suteen kontrako kanpo defentsen zehazten eta kudeatzen laguntzea

- herriko kontseiluari noiztenka eskumen-arlo horretan plantan ematen dituen ekintzen berri ematea

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak, aho batez :

Christian SOCODIABEHERE jauna izendatzea « suteak eta sokorriak » erreferente gisa **IZENDATZEN DU**

**Ensemble pour Ustaritz**: Christian Socodiabeheren gaitasunak goستن ditugu eta guk ere haren izena proposatuko genukeen.

#### 4- RENOUELEMENT DE LA COMMISSION COMMUNALE DES IMPOTS DIRECTS (CCID)

Monsieur le Maire présente le rapport suivant,

Au terme de l'article 1650, paragraphe 3 du Code Général des Impôts, la durée du mandat des membres de la Commission Communale des Impôts Directs est la même que celle du mandat du conseil municipal. Il nous appartient donc, à la suite du renouvellement général du Conseil municipal, de désigner les nouveaux délégués en vue de la constitution d'une nouvelle Commission Communale des Impôts Directs.

Je vous rappelle que cette commission, outre le Maire ou l'Adjoint délégué qui en assure la présidence, comprend huit commissaires qui doivent être de nationalité française, âgés de 18 ans au moins, jouir de leurs droits civils et être Inscrits à l'un des rôles des impôts directs locaux dans la commune.

La CCID intervient surtout en matière de fiscalité directe locale et :

- Dresse, avec le représentant de l'administration, la liste des locaux de référence pour déterminer la valeur locative des biens affectés à l'habitation ou servant à l'exercice d'une activité salariée à domicile, détermine leur surface pondérée et établit les tarifs d'évaluation correspondants (article 1503 du CGI)
- Participe à l'évaluation des propriétés bâties (article 1505 du CGI) ;
- Participe à l'élaboration des tarifs d'évaluation des propriétés non bâties ;
- Formule des avis sur des réclamations portant sur une question de fait relative à la taxe d'habitation et la taxe d'enlèvement des ordures ménagères (article R. 198-3 du livre des procédures fiscales).

La durée du mandat des membres de la commission est identique à celle du mandat du conseil municipal.

Les huit commissaires titulaires, ainsi que les huit commissaires suppléants sont désignés par Monsieur le Directeur Départemental des finances publiques, sur une liste de contribuables dressée, en nombre double, par le Conseil municipal.

En conséquence, il est proposé au Conseil municipal de désigner les délégués titulaires et suppléants de la Commission Communale des Impôts Directs.

#### 4- ZUZENeko ZERGen HERRIKo BATZORDEAREN BERRITZEA

Auzapez jaunak ondoko txostena aurkezten du:

1650. artikulua 3. paragrafoaren arabera, Zerga Orokorren Kodean xedatzen denez, Zuzeneko Zergen Udal Batzordeko kideen agintaldiaren iraupena udal kontseiluaren agintaldiaren berdina da. Beraz, udal kontseiluaren berritze orokorraren ondotik, gure esku da ordezkari berriak izendatzea, Zuzeneko Zergen Udal Batzorde berri bat osatzeko.

Oroitarazten dizuet batzorde honek, bertako lehendakaritza bere gain hartzen duen alkateaz edo haren ordezko alkateordeaz gain, zortzi kide dituela; hauek frantses nazionalitatekoak izan behar dute, gutienez 18 urtekoak, beren eskubide zibilak baliatzeko gai direnak, eta udalerrian tokiko zuzeneko zergen erroldetako batean inskribatuak

Zuzeneko zergen batzordeak tokiko zuzeneko zergetan esku hartzen du bereziki, eta:

- administrazioaren ordezkariekin, bizitzera edo etxeko soldatapeko jardueren egitera bideratu ondasunen alokairu-balioaren finkatzeko erreferentzia-lokalen zerrenda finkatzen du, horien izarira ekarri azalera erabakitzen du, eta dagozkien ebaluaketa-prezioak finkatzen (Zergen kode nagusiaren 1503. artikulua)
- ondasun eraikien ebaluaketan parte hartzen du (Zergen kode nagusiaren 1505. artikulua);
- ondasun ez eraikien ebaluaketa-prezioen finkatzean parte hartzen du;
- bizitegi zergari eta etxe hondakinen bilketa zergari buruzko eskabideei buruzko iritziak ematen ditu (prozedura fiskalen liburuko R. 198-3 artikulua).

Batzordeko kideen agintaldiaren iraupena herriko kontseiluaren agintaldiaren iraupen berekoa da.

Zortzi komisario titularrak eta zortzi ordezko komisarioak Ogasun Publikoetako Departamenduko zuzendari jaunak izendatzen ditu, udal kontseiluak prestatutako zergadunen zerrenda baten gainean, kopuru bikoitzean aurkeztua.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

**- PROPOSE :**

Régis HOUDARD, Isabelle LAGRUE, Marie-France SEMERENA-OLAIZOLA, Jean Pierre GOYHENECHÉ, Françoise GALLOIS, Jacques DRIEUX, Mikel GOYHENECHÉ, Olivier ETCHEVERLEPO, Martine SONNET-ORHATEGARAY, Bruno BORDES, Mayi DASSANCE, Arnaud OSPITALETCHÉ, Marie-Christine AMESTOY, Aña DAVRIL, Marie-Hélène RODRIGUES, Joseph ETCHEVERRY, Charlotte MORGANA, Guillaume DARDEN, Peio GOYHENECHÉ, Aitor LAGRENADE, Pierre HAIRA, Henri DESCUNS, Gilles DESGROLARD, Marie-Christine URRUTIA-LABOUYRIE, Céline LAMAISON, Aurélie BONTAN, Robert DASSANCE, Joana OYHARCABAL, Nicole SAINT-JEAN, Sauveur SISTIAGUE

**\* ENFANCE - JEUNESSE**

**5- APPROBATION DE LA CONVENTION DE REVERSEMENT DE L'ACCOMPAGNEMENT FINANCIER DE L'ETAT AU TITRE DU SERVICE PUBLIC DE LA PETITE ENFANCE AVEC LA CAPB.**

Madame Rouma présente le rapport suivant :

Vu la loi n° 2023-1196 du 18 décembre 2023 pour le plein emploi, en particulier son article 17 ;

Vu le décret n° 2025-678 du 21 juillet 2025 relatif aux modalités de répartition de l'accompagnement financier des communes de plus de 3 500 habitants pour l'exercice des compétences d'autorité organisatrice de l'accueil du jeune enfant ;

Vu le code général des collectivités territoriales, notamment ses articles L. 5216-5 et L. 5211-17 ;

Vu le code de l'action sociale et des familles, notamment ses articles L. 214-1-3 et R. 214-10-2 à R. 214-10-5 ;

Vu l'arrêté préfectoral n° 64-2016-07-13-011 du 13 juillet 2016 portant création de la Communauté d'Agglomération Pays Basque au 1<sup>er</sup> janvier 2017 et déterminant ses compétences ;

Vu la délibération du Conseil communautaire de la Communauté d'Agglomération Pays Basque du 16 décembre 2017 relative à l'exercice de la compétence en matière d'action sociale d'intérêt communautaire sur l'ensemble de son territoire ;

Vu les délibérations du Conseil communautaire de la Communauté d'Agglomération Pays Basque des 3 novembre 2018 et 7 décembre 2024 portant définition et mise en conformité de l'intérêt communautaire pour l'exercice de la compétence

Ondorioz, udal kontseiluari proposatzen zaio Zuzeneko Zergen Udal Batzordeko kide titular eta ordezkioak izendatzea.

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak, aho batez :

**- PROPOSATZEN DA :**

Régis HOUDARD, Isabelle LAGRUE, Marie-France SEMERENA-OLAIZOLA, Jean Pierre GOYHENECHÉ, Françoise GALLOIS, Jacques DRIEUX, Mikel GOYHENECHÉ, Olivier ETCHEVERLEPO, Martine SONNET-ORHATEGARAY, Bruno BORDES, Mayi DASSANCE, Arnaud OSPITALETCHÉ, Marie-Christine AMESTOY, Aña DAVRIL, Marie-Hélène RODRIGUES, Joseph ETCHEVERRY, Charlotte MORGANA, Guillaume DARDEN, Peio GOYHENECHÉ, Aitor LAGRENADE, Pierre HAIRA, Henri DESCUNS, Gilles DESGROLARD, Marie-Christine URRUTIA-LABOUYRIE, Céline LAMAISON, Aurélie BONTAN, Robert DASSANCE, Joana OYHARCABAL, Nicole SAINT-JEAN, Sauveur SISTIAGUE

**\* HAURTZAROA - GAZTERIA**

**5- LEHEN HAURTZAROKO ZERBITZU PUBLIKOAREN KONTU FRANTZIAKO ESTATUAREN DIRU LAGUNTZAREN ORDAINTZEKO EUSKAL ELKARGOAREKIKO HITZARMENAREN ONARTZEA**

Rouma andereak gaia aurkeztu du:

Enplegu betetasuna kausitzeko 2023ko abenduaren 18ko 2023-1196 legea kontuan izanik, eta bereziki haren 17. artikulua;

Haur ttipien harrera antolatzeko eskumenen gauzatzeko 3500 biztanle baino gehiagoko udaletako diru laguntzen banaketa moldeei buruzko 2025eko uztailaren 21eko 2025-678 dekretua kontuan izanik;

Lurralde Elkargoen Kode Orokorra eta, bereziki, L. 5216-5 eta L. 5211-17 artikulua kontuan izanik;

Gizarte ekintzaren eta familien kodea kontuan izanik, bereziki L. 214-1-3 eta R.214-10-2tik R. 214-10-5erakoak;

Euskal Hirigune Elkargoa sortu zuen 2016ko uztailaren 13ko 64-2016-07-13-011 prefektura-erabakia eta haren eskumenak finkatu zituen 2017ko urtarrilaren 1.ekoa kontuan izanik,

Lurralde osoan elkargoaren intereserako gizarte ekintzako eskumenaren gauzatzeari buruzko Euskal Hirigune Elkargoko kontseiluaren 2017ko abenduaren 16ko deliberamendua kontuan izanik;

en matière d'action sociale d'intérêt communautaire ;

Depuis le 1<sup>er</sup> janvier 2025, en application des dispositions législatives et réglementaires relatives au service public de la petite enfance (SPPE), les communes et le cas échéant, les établissements publics de coopération intercommunale compétents, sont désignés autorités organisatrices de l'accueil du jeune enfant.

À ce titre, les autorités organisatrices sont chargées de définir, piloter et mettre en œuvre une politique locale de l'accueil du jeune enfant, adaptée aux besoins des familles, et d'assurer l'ensemble des missions relevant du SPPE.

La CAPB exerçant l'ensemble des compétences dévolues à une autorité organisatrice de l'accueil du jeune enfant dans les pôles territoriaux d'Amikuze, Errobi, Garazi-Baigorri, Iholdi-Oztibarre, Nive-Adour, Pays de Bidache, Pays de Hasparren et Soule Xiberoa, l'intérêt communautaire de la compétence communautaire en matière d'action sociale a été mis en conformité avec l'article L. 214-1-3 du code de l'action sociale et des familles par délibération du Conseil communautaire du 7 décembre 2024.

Afin d'accompagner les collectivités dans l'exercice des nouvelles obligations liées au SPPE, l'État a institué un accompagnement financier réservé aux communes de 3 500 habitants et plus, conformément aux modalités définies par le décret n°2025-678 du 21 juillet 2025.

Par arrêté ministériel du 22 octobre 2025 portant notification des attributions individuelles au titre de cet accompagnement financier pour l'exercice 2025, la commune d'UZTARITZE s'est vu attribuer un montant de 24 393.75 euros.

Il convient d'organiser le reversement à la CAPB de l'accompagnement financier attribué par l'État à la commune afin de couvrir les charges supportées par l'intercommunalité dans le cadre de l'exercice effectif des compétences d'autorité organisatrice de l'accueil du jeune enfant.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **APPROUVE** la convention de partenariat avec la Communauté d'Agglomération Pays Basque,

Elkargoaren intereserako gizarte ekintzako eskumenaren gauzatzeko elkargoaren interesa definitu eta egokitu zuten Euskal Hirigune Elkargoko kontseiluaren 2018ko azaroaren 3ko eta 2024ko abenduaren 7ko deliberamenduak kontuan izanik;

2025eko urtarrilaren 1.az geroztik, lehen haurtzaroaren zerbitzu publikoari buruzko lege eta arau erabakiei jarraiki, udalak eta, badelarik, eskumena duten herri arteko lankidetzarako elkargo publikoak dira haur ttipien harreraren autoritate antolatzaileak.

Hala, autoritate antolatzaileek familien beharrei egokitu haur ttipien harrerarako tokiko politikaren definitzeko, gidatzeko eta obratzeko ardura dute, baita lehen haurtzaroaren zerbitzu publikoari dagozkion eginkizun guzien eramatekoa ere.

Euskal Hirigune Elkargoak ditu haur ttipien harreraren autoritate antolatzaileei dagozkien eskumen guziak bere gain Amikuzeko, Errobiko, Garazi-Baigorriko, Iholdi-Oztibarreko, Errobi-Aturriko, Bidaxunealdeko, Hazparnealdeko eta Xiberoko lurralde eremuetan. Beraz, gizarte ekintzaren arloko elkargoaren eskumenaren elkargo interesa gizarte ekintzaren eta familien kodeko L. 214-1-3 artikulua araberako egokitu zen, 2024ko abenduaren 7ko elkargo kontseiluaren bitartez.

Elkargoen laguntzeko lehen haurtzaroaren zerbitzu publikoari dagozkion betebeharrak gauzatzeko, Frantziako estatuak 3500 biztanle eta gehiagoko herriendako dirulaguntza bat ezarri du, 2025eko uztailaren 21eko 2025-678 dekretuari jarraiki.

2025eko ekitaldirako dirulaguntza horren ondoriozko banakako esleipenen berri ematen duen 2025eko urriaren 22ko ministerio-erabakiaren bitartez, UZTARITZEko hiriari 24 393.75 euro esleitu zizkioten.

Frantziako estatuak Uztaritzeko hiriari esleitu dirulaguntza Euskal Elkargoari ordaintzea komeni da, haur ttipien harrerarako autoritate antolatzailearen eskumenaren gauzatzeko elkargoak bere gain hartzen dituen gastuen estaltzeko.

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak, aho batez :

- Euskal Hirigune Elkargoaren eta herriaren arteko partaidetza hitzarmenaren **ONARTZEN DU**

- Auzapez jaunari hitzarmenaren gauzatzeko dokumentu ororen sinatzeko **BAIMENA EMATEN DU**.

- **AUTORISE** Monsieur le Maire à signer toutes pièces en application de la convention.

**- URBANISME – TRAVAUX – VOIRIE**

**6- CONVENTION DE SERVITUDE AVEC ENEDIS POUR L'IMPLANTATION D'UNE CANALISATION ELECTRIQUE- PARCELLE AR N° 580**

Monsieur SERRANO présente le rapport suivant :

En vue du raccordement au réseau électrique de la chaufferie bois de Landagoien, en cours de construction, ENEDIS prévoit l'implantation d'une canalisation électrique sur la parcelle communale AR n° 580.

ENEDIS dans le cadre d'une convention de servitude pourra notamment établir à demeure dans une bande de servitude de 3 mètres de large, une canalisation souterraine sur une longueur total de 90 mètres ainsi que ses accessoires.

A titre de compensation forfaitaire et définitive, ENEDIS s'engage à verser à la Commune, lors de l'établissement de l'acte notarié, une indemnité définitive et forfaitaire de dix euros (10 €).

La convention est prévue pour la durée des ouvrages qui la concerne et pour celle de toute autorisation qui pourrait lui être substituée.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **AUTORISE** Monsieur le Maire à signer la convention de servitude correspondante.

**- FINANCES – RESSOURCES HUMAINES**

**7- FORFAIT SCOLAIRE ANNEE SCOLAIRE 2025-2026 :**

Madame Rouma présente le rapport suivant,

En vertu de l'article 85-97 de la loi du 25 janvier 1985, relative à l'enseignement privé, la Commune a l'obligation de participer à la prise en charge des dépenses de fonctionnement matériel des écoles primaires et maternelles relevant de son territoire, et se trouvant sous contrat d'association.

Les financements ainsi consentis doivent être égaux à ceux dépensés pour le fonctionnement l'école publique.

**\* HIRIGINTZA – OBRAK - BIDEAK**

**6- ENEDISekin ZERBITZUTASUN-HITZARMENA. KANALIZAZIO ELEKTRIKO BATEN EZARTZEKO – AR 580. LURSAILA**

Serrano jaunak ondoko txostena aurkezten du:

Landagoieneko egurrezko berogailu zentralaren sare elektrikoarekiko lotura egiteko – gaur egun eraikitzen ari dena – ENEDISek aurreikusten du kanalizazio elektriko baten ezartzea AR 580 zenbakidun herri-lursailean.

Zerbitzutasun-hitzarmen baten barnean, ENEDISek bereziki ezarri ahal izanen du, 3 metro zabaleko zerbitzutasun-zerrenda batean, lurpeko kanalizazio bat, 90 metroko luzera osoan, baita haren osagarriak ere.

Ordainketa bakar eta behin betiko gisa, ENEDISek hitzematen du Komunari ordaintzea, notario-aktaren egitean, hamar euroko (10 €) kalte-ordain finko eta behin betikoa.

Hitzarmena aurreikusia da hari dagozkion obren iraupenerako, bai eta haren orde ezar daitekeen baimen ororen iraupenerako ere.

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak, aho batez :

- **BAIMENAREN EMAITEN DU** auzapeza jauna dagokion zerbitzutasun-hitzarmena sinatzera.

**\* FINANTZAK – GIZA BALIABIDEAK**

**7- 2025-2026 IKASTURTEKO ESKOLA FORFETA**

Rouma andereak txostena aurkeztu du:

Irakaskuntza pribatuari buruzko 1985eko urtarrilaren 25eko legearen 85-97. artikuluari jarraiki, herriak bere lurraldeko elkarte-kontratuko ama-eskolako eta lehen mailako eskolen funtzionamendu materialari dagozkion gastuen ordainketan parte hartu behar du.

Diru-laguntza eskola publikoaren funtzionamendurako ematen diren zenbatekoen parekoa izan behar da.

Ces dépenses concernent :

- L'entretien des locaux affectés à l'enseignement,
- Les frais de chauffage, d'eau, d'éclairage et de nettoyage des locaux à usage d'enseignement,
- L'achat des fournitures scolaires et matériels afférents à l'enseignement,
- La rémunération des agents de service et ATSEM.

Dès lors, le forfait scolaire qui sera attribué à chacune des écoles sous contrat d'association présente sur le territoire d'Uztaritze sera, en fonction de leurs effectifs, de :

Gastuak hauei dagozkie:

- \* Irakaskuntzarako gelen mantentze-lanak,
- \* Irakaskuntzarako geletako berogailu, ur, argitze eta garbitze gastuak,
- \* Eskola horniduren eta irakaskuntzarako euskarrien erosketa,
- \* Zerbitzu-langileen eta ATSEM laguntzaileen soldatak.

Uztaritzeko lurraldean den elkarte kontratua den eskola bakoitzari zaion eskola forfeta, haien kopuruaren arabear, hau izanen dira :

ECOLEES D'ASSOCIATION	SOUS CONTRAT	ELEVES RESIDANT UZTARITZE 2025-2026	A	MONTANT
ECOLE PRIVEE ST VINCENT		<b>149</b>		<b>117 561 €</b>
	Maternelles	63 élèves		49 707 €
	Elémentaires	86 élèves		67 854 €
IKASTOLA		<b>52</b>		<b>41 028 €</b>
	Maternelles	23 élèves		18 147 €
	Elémentaires	29 élèves		22 881 €

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **FIXE** le forfait communal à 789 € par élève d'Uztaritze pour l'année scolaire 2025-2026.

### 8- DEPENSES FETES ET CEREMONIES

Madame Idieder présente le rapport suivant,

Vu le Code général des collectivités territoriales, Considérant la demande du Trésor public et l'approbation d'une délibération concernant les principales caractéristiques des dépenses à reprendre à l'article 6232 « fêtes et cérémonies », conformément aux instructions réglementaires et aux dispositions comptables propres à cet article budgétaire.

Considérant la liste ci-dessous des dépenses qui pourront être faites mais sans en indiquer les montants :

- En général, l'ensemble des biens, services, objets et denrées divers ayant trait aux fêtes, cérémonies, manifestations

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak, aho batez :

- **FINKATZEN DU** Uztaritzeko ikasle bakoitzeko udal forfait-a 789 €-tan, 2025-2026 ikasturterako.

### 8- BESTEN ETA ZEREMONIEN GASTUAK

Idieder andereak gaia aurkeztu du:

Lurralde Elkargoen Kode Nagusia kontuan izanik; Altxor publikoak egin galdea eta "bestak eta zeremoniak" 6232. artikuluan berriz hartu behar diren gastuen ezaugarri nagusiei buruzko deliberamendu baten onartzea kontuan izanik, aurrekontu-artikulu horri dagozkion arau-aginduei eta kontularitza-erabakiei jarraiki,

Egiten ahalko diren baina zenbatekoak zehaztuak ez dituzten gastuen behereko zerrenda hau kontuan izanik:

- Oro har, besta, zeremonia, kultur eta turismo gertakariei dagozkien ondasun, zerbitzu, objektu eta janari-edari guztiak; adibidez, kultur

culturelles/touristiques tels que, par exemple, les décorations culturelles/touristiques, les décorations et sapins de Noël, les cadeaux et jouets, divers prestations et cocktails servis lors de cérémonies ou réceptions officielles et inaugurations, feux d'artifice, locations chapiteaux et matériels festifs, pose et dépose décorations festives ;

- Les fleurs, bouquets, gravures, médailles et coupes et autres présents offerts à l'occasion de divers événements et notamment lors des mariages, décès, naissances, départs en retraite, départs, récompenses sportives, culturelles ou lors de réceptions officielles ;
- Le règlement de factures de sociétés et troupes de spectacles et autres frais liés à leurs prestations ou contrats ;
- Les frais de restauration des élus ou employés municipaux liés aux actions communales ou à l'occasion d'événements ponctuels ;
- Les dépenses liées à l'achat de denrées et petites fournitures pour l'organisation de réunions ou d'ateliers ou de manifestations.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **DECIDE** d'inscrire les dépenses telles que précisées ci-dessus à l'article 6232 « fêtes et cérémonies » conformément aux instructions réglementaires et aux dispositions comptables propres à cet article budgétaire.

### 9- SUBVENTION 2026 : CENTRE COMMUNAL D'ACTION SOCIALE D'UZTARITZE (CCAS)

Madame Idieder présente le rapport suivant :

Afin d'équilibrer le budget 2026 du Centre Communal d'Action Sociale d'Uztaritze, la participation de la commune d'Uztaritze est fixée à 136 850€.

Cette subvention a fait l'objet d'un versement d'un 1<sup>er</sup> acompte de 45 000€ par délibération n°10 le 29 janvier 2026.

Cette subvention sera versée sous la forme de 3 autres acomptes :

- 2<sup>ème</sup> trimestre 2026 : 30 617 €
- 3<sup>ème</sup> trimestre 2026 : 30 617 €
- 4<sup>ème</sup> trimestre 2026 : 30 616 €

En cas d'urgence, une échéance pourra être versée par anticipation.

eta turismo apainketak, Eguberriko apainketak eta izaiak, opariak eta jostailuak, zeremonia edo gomit besta ofizialetan eta estreinaldian zerbitzatu orotariko koktel eta zerbitzuak, su-festak, karpa eta besta-materialen alokatzea, besta-apainketen ezartzea eta kentzea;

- Loreak, lore-sortak, grabatuak, medailak, kopak eta gertakarietan eskaini gainerateko opariak, bereziki eztei, heriotza, sortze, erretreta hartze, lan uzte, kirol eta kultura sariketetan eta beste gomit besta ofizialetan;
- Antzerki talde eta sozietateei fakturen eta beren zerbitzu emate edo kontratuen arabera gainerateko gastuen ordaintzea;
- Udal ekintzei edo noiztenkako gertakariari lotu hautetsien edo herriko etxeko langileen ostatu-gastuak;
- Bilkuren, tailerren edo gertakarien antolatzeak janari-edari eta hornidura ttipiei lotu gastuak.

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak, aho batez :

- "Bestak eta zeremoniak" 6232 artikuluan gastuak gainean zehaztu bezala sartzeari **ERABAKI DU**, aurrekontu-artikulu horri dagozkion arau-jarraibideei eta kontularitza-erabakiei jarraiki.

### 9- 2026 DIRULAGUNTZA: UZTARITZEKO GIZARTE EKINTZARAKO UDAL ZENTROA (GEUZ)

Idieder andereak txostena aurkeztu du:

Uztaritzeko Gizarte Ekintzarako Udal Zentroaren 2026ko aurrekontuaren orekatzeko, Uztaritzeko herriaren parte hartzea 136 850 €an finkatua da.

Diru-laguntza hori, 45 000€ko lehen ordainketa egin zen 2026ko urtarrilaren 29ko 10. deliberazioaren bidez.

Dirulaguntza hori 3 alditan ordainduko da (hiruhileko guziz) :

- bigarren hiruhilekoa : 30 617 €
- hirugarren hiruhilekoa : 30 617 €
- laugarren hiruhilekoa : 30 616€

Larrialdirik gertatuz gero, ordainketa bat pentsatu baino lehenago egiten ahalko da.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **APPROUVE** le versement d'une participation communale d'un montant de 136 850€ versée sous la forme de 4 échéances (1 par trimestre) au Centre Communal d'Action Sociale d'Ustaritz, au titre de l'année 2026.

## 10- BUDGET PRIMITIF 2026

Madame Idieder présente le rapport suivant,

Le budget 2026 est voté par chapitre en Fonctionnement et est voté au niveau de l'opération en Investissement.

Au titre de la fongibilité, le conseil municipal accorde au maire une délégation pour procéder à des virements de crédits de chapitre à chapitre, au sein d'une même section, dans la limite de 7,5 % des dépenses réelles de la section. Il est précisé que Monsieur le Maire informera le conseil municipal de ces mouvements de crédits dans le cadre du relevé de décisions lors de la plus proche séance.

Le budget 2026 s'équilibre comme suit :

### \* FONCTIONNEMENT

DEPENSES : 8 499 107€  
RECETTES : 8 499 107€

### \* INVESTISSEMENT

DEPENSES : 7 063 111€  
RECETTES : 7 063 111 €

*Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à la majorité :*

- **ADOpte** le budget principal 2026.

**UB :** *En préambule et comme j'ai pu le dire aussi en commission de finances, je tenais à remercier les services et aussi notre élue aux finances, Sandra Idieder. Ce budget a été réalisé dans un temps très court. Même s'il y avait une continuité de l'équipe, il y a eu un gros renouvellement. Les services ont dû s'adapter et je les en remercie.*

**Ensemble pour Ustaritz :** *Concernant votre demande de renseignement auprès de la direction des finances pour cette différence de dotations, pourquoi ne l'avez-vous pas fait avant ??? Puisque vous en faites le constat chaque année ???*

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak, aho batez :

- Herriko etxeak Uztaritzeko Gizarte Ekintzarako Udal Zentroari, 2026rako, 136 850 €ko parte hartzearen ordaintzearen **ONARTZEN DU**, 4 alditan (hiruhileko guziz)

## 10- 2026 URTEKO LEHEN AITZINKONTUA.

Idieder andereak ondoko txostena aurkezten du,

2026ko aurrekontua Ibilmoldean kapituluka bozkatua da eta Inbestizamendu operazioaren mailan bozkatua da.

Suntsikortasuna dela eta, herriko kontseiluak auzapezari atal bereko kapitulu batetik bestera biramenduen egiteko ordezkari ematen dio, ataleko gastu errealean %7,5eko mugan. Auzapez jaunak hurrengo bilkuran erabaki-zerrendaren baitan herriko kontseiluari kreditu-mugimendu horien berri emanen diola zehaztu da.

Honela orekatzen da:

### \* IBILMOLDEA:

Xahutzeak : 8 499 107€€  
Sartzeak : 8 499 107€

### \* INBESTIZAMENDUA:

Xahutzeak : 7 063 111€  
Sartzeak : 7 063 111€

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak, gehiengoak :

- **ONARTZEN DU** 2026ko aitzinkontu nagusia.

**UB:** *Hasteko, eta diru batzordean jada erran dudan bezala, zerbitzuak eskertu nahi ditut, baita Sandra Idieder gure finantzetaiko hautetsia ere. Aurrekontuaren egiteko zinez denbora guti izan da. Lantaldearen jarraitutasuna hor izanik ere, berritze handia izan da. Zerbitzuek egokitu behar izan dute eta eskertu nahi ditut.*

**Ensemble pour Ustaritz:** *Dotazioetan dagoen tarte horri buruz finantzen zuzendaritzari informazioak galdegiteari buruz, zergatik ez duzue lehenago egin??? Urte guziz gauza beraz ohartzen baitzarete???*

**UB:** c'est le premier budget du mandat. Nous souhaitons demander une réévaluation et qu'il nous explique le mode de calcul.

**Ensemble pour Ustaritz :** C'est un budget sur la continuité, c'est un budget qui suit ce qui avait été fait jusqu'à présent, puisque par exemple, en investissement, on voit que sur les bâtiments communaux, 94 % représentent la médiathèque. On voit qu'en voirie, il n'y a rien de prévu. Après oui, il y a les pistes cyclables qui sont subventionnées avec le CD64.

Il n'y a pas de grande révolution, puisque je vois qu'encore, que rien n'est prévu pour les routes. Nous avons tous fait campagne et il y a une urgence au niveau de Sokorrondo et nous le regrettons. Au niveau du fonctionnement, après la commission générale des subventions aux associations, nous ne sommes pas d'accord sur le chiffre. Il n'y a pas d'augmentation sur les subventions, en règle générale, sauf cas exceptionnel quand il y a un anniversaire ou quelque chose d'exceptionnel, finalement.

Il a fallu se battre pour qu'Eskuz Esku aient 200 euros de plus. Concernant les Restos du Cœur, pareil, rien n'était prévu.

Depuis 5 ans, ça n'augmente pas. On se rend compte qu'on a un excédent de fonctionnement et qui est rebasculé derrière. Ce n'est pas étonnant puisqu'on n'augmente pas les subventions. Donc, quand tu n'augmentes pas les subventions, que tu n'augmentes pas le fonctionnement, l'excédent augmente.

L'année dernière, on avait presque 40 000 euros de pénalité SRU. Cette année, on est à 80 000. Il va falloir peut-être réagir parce qu'à un certain moment, on n'est pas encore à Biarritz, mais, il ne faudrait pas que ça augmente tous les ans comme ça.

**UB:** Plusieurs points, tes propos confirment que nous avons une vision politique différente un budget de transition avec des investissements qui étaient prévus par la précédente majorité, qu'on a souhaité et qu'on est fiers de porter comme la médiathèque, c'est un investissement qui est pour nous nécessaire pour la commune, qui est bien plus qu'une médiathèque. On a eu le temps d'en débattre et en redébattre. A ce propos, on proposera au prochain conseil municipal une visite. Et je pense qu'une fois que ça sera ouvert d'ici un an, elle fera l'unanimité ou la quasi-unanimité.

**UB:** Agintaldiko lehen aurrekontua da. Berrebaluaketa eta kalkulatzeko moldeari buruzko azalpenak galdegin nahi ditugu.

**Ensemble pour Ustaritz:** Aurrekontu hori jarraikia da, orain arte egina izan dena segitzen du; alabaina, adibidez, inbertsioetan, ageri da herriko eraikinen %94 mediatekari dagozkiola. Bideetan, ageri da ez dela deus aurreikusirik. Bai, bizikletendako bideak badira, Pirinio Atlantikoetako Garapen Kontseiluak diruz lagunduak.

Ez da iraultza handirik; izan ere, ikusten dut aurten ere bideetarako ez dela deus pentsatua. Kanpaina egin dugu denek, eta Sokorrondo-n zerbait egitea zinez presazkoa da; pena ematen digu deus ez aurreikusteak.

Funtzionamenduari dagokionez, elkartendako dirulaguntzen batzorde orokorraren ondotik, zenbakiekin ez gara ados. Dirulaguntzak ez dira emendatu, oro har, salbuespenetan salbu, urtebetetze edo ezohiko zerbait izan delarik, azkenean.

Borrokatu behar izan gara Eskuz Esku-k 200 euro gehiago ukan ditzan. Restos du Cœur elkartearentzat, berdin, ez zen deus aurreikusia. Badu 5 urte ez dela emendatzen. Ohartzen gara funtzionamenduan soberakina dugula eta aurrekontuan berriz baliatzen dela. Ez da harritzekoa, dirulaguntzak ez baitira emendatzen. Beraz, dirulaguntzak ez badira emendatzen, funtzionamendua ez bada emendatzen, soberakina emendatzen da.

Iaz, kasik 40 000 euroko SRU zigorra ukan genuen. Aurten, 80 000 eurotan gara. Zerbait egin beharko da, beharbada: ez gara oraino Biarritzen, baina ez litzateke urte guzietan hola emendatu behar.

**UB:** Zenbait puntu: zure erranek baieztatzen dute ikuspegi politiko desberdina dugula. Trantsizio-aurrekontua da, eta aitzineko gehiengoak inbertsioak aurreikusi zituen. Inbertsio horiek, mediateka, adibidez, nahi izan ditugu eta horretaz harro gara: guretzat, inbertsio hori herriarentzat beharrezkoa da, mediateka soila baino aise gehiago da. Behin eta berriz eztabaidatzeko astia ukan dugu. Horretaz ari baikara, heldu den herriko kontseiluan bisita proposatuko dugu. Nik uste, urte baten buruan zabalduko delarik, adostasun osoa eragingen du, edo kasik.

Gure proiektuak aipatu dituzu, kritikatzeko duzu, baina aitzineko agintaldietan egin dituzun proposamen batzuk eta bozkatzeko batzuk ere oitarrak behar dira. 2021eko aurrekontu

*Tu es revenu sur nos projets, voilà, tu critiques, mais juste pour rappeler aussi quelques-unes de tes positions lors des précédents mandats et tes votes. Lors du DOB 2021, Vous aviez dénoncé le projet de la mairie à Lapurdi, Je pense qu'aujourd'hui, ce projet fait l'unanimité auprès des services auprès des Uztariztar. Nous avons bien fait de ne pas vous écouter lors du débat d'orientation budgétaire 2021. On parlera du plan local d'urbanisme plus tard, parce que cela rejoint la loi SRU, mais vous avez voté contre ce PLU en septembre 2018.*

*Je souhaiterais ici rappeler également l'histoire du Château Haltya ou pas, par une fois, pas par deux fois, mais au moins par quatre fois, vous avez voté contre la vente du Château Haltya qui aurait mis en grande difficulté les finances communales. Alors qu'à cette époque-là, elles étaient déjà dans le rouge. Et cela pour un projet de mairie complètement déconnecté de toute réalité, On a bien fait de ne pas vous écouter à de faire la mairie à ici-même. Un autre vote aussi, en septembre 2016, aussi, où tu avais été le seul conseiller municipal à voter contre la convention d'occupation avec Etcharry formation. On avait proposé une convention d'occupation des locaux communaux à Echarry Formation qui était à l'étroit dans les locaux loués par la mairie. Et si la mairie ne mettait pas à disposition des locaux complémentaires pour la rentrée suivante, l'organisme pouvait partir de la commune. Il a fallu trouver en urgence trouver des solutions. A l'époque, les adjoints, et en particulier Christian Ibarboure, ont fait le tour des associations. Une solution du moins pire a été trouvée. On a mis à l'étroit des associations, on l'a assumé. Ce qui a permis que Etcharry puisse faire la rentrée 2016-2017 à Ustaritz. On voit maintenant qu'ils veulent s'implanter durablement sur la commune, c'est plus de 350 étudiants. Là aussi, si on avait suivi ton vote, on aurait perdu Etcharry sur la commune. Pour revenir sur les différents points que tu as abordés ; concernant le budget voirie, de gros efforts financiers ont été faits sur le précédent mandat. Cette année, c'est un peu moindre.*

*Il y a certaines lignes, je pense, qui vont évoluer. On essaiera de renforcer la voirie parce qu'il reste des choses à faire. On verra à la fin de l'année si Salesenborda est réalisé ou pas. Si ce n'est pas fait cette année, ça sera fait en 2027, mais on en parlera à la fin de l'année.*

*Autre point que tu as abordé, c'est par rapport aux associations. Comme tu dis, on ne fait pas du tout la même lecture. On regarde les chiffres, mais c'est une augmentation de 5% des taux de subvention, du montant global. Je voulais compléter, parce qu'on n'avait pas les éléments lors de la commission, parce qu'on n'avait pas les éléments*

*norabideei buruzko eztabaidan, Lapurdi guneko herriko etxe proiektua salatu zenuten. Nik uste, egun, proiektu horrek adostasun osoa du: bai zerbitzuena, bai uztariztarrena. Eskerrak 2021eko eztabaidan ez genizuela kasurik egin.*

*Tokiko hirigintza plana berantago aipatuko dugu, SRU legearekin lotua baita, baina 2018ko irailean THP horren kontra bozkatu zenuten. Oroitarazi nahi dut, baita ere, Haltya gazteluaren istorioa: behin ez, bi aldiz ez, gutienez lau aldiz Haltya gazteluaren saltzearen kontra bozkatu zenuten; kasu egin bagenizue, herriko finantzak zailtasun handitan ziratekeen. Alta, garai hartan, jada kinka txarrean ziren. Eta zuen herriko etxe proiektua errealitatetik arunt deskonektatua zen. Eskerrak ez genizuela kasurik egin. Beste bozketa bat: 2016ko irailean, Etcharry formakuntza zentroarekin okupazio-hitzarmena sinatzearen kontra bozkatu zuen kontseilari bakarra izan zinen. Etcharry formakuntza zentroari herriko lokal batzuen baliatzeko hitzarmena proposatu genuen, herriko etxeak alokatzen zion egoitzan lekua eskas baitzuten. Herriko etxeak ondoko sartzarako lokal gehiago ematen ez bazion eskura, organismoa heritik joateko arriskua bazen. Aterabideak atzeman behar izan ziren, presaka. Garai hartan, axuantak, eta bereziki Christian Ibarboure, elkarteen itzulia egin zuten. Txarren artean hain txarra ez zen aterabidea atzeman zuten. Elkarte batzuk tinko ezarri genituen, hori onartu genuen. Horri esker, Etcharryk 2016-2017 sartzea Uztaritzen egin ahal izan zuen. Orain ikusten dugu herrian luzerako plantatu nahi dutela; 350 ikasle baino gehiago dira. Hor ere, zure boza segitu bagenu, Etcharry galduko genukeen. Jorratu dituzun gaietara itzul gaitezten: bideen aurrekontuari buruz, aitzineko agintaldian finantza-indar handiak egin ditugu. Aurten, gutiago izanen da.*

*Nik uste, lerro batzuk mugituko dira. Saiatuko gara bide-sarearen indartzen, gauza batzuk baitira oraindik egiteko. Urte hondarrean ikusiko dugu Salesenborda gauzatu den ala ez. Aurten egiten ez bada, 2027an eginen da, baina urte hondarrean berriz aipatuko dugu.*

*Aipatu duzun beste gai bat: elkarteena. Zuk erran bezala, egoera ez dugu batera gisa berean irakurtzen. Zenbakiei begiratzen diegu: dirulaguntza mailak %5 emendatu dira, zenbateko osoan. Osatu nahi dut, batzordea iragan zelarik osagai horiek ez baikenituen, GEUZaren osagaiak eskas genituelako, Saint-Sauveur eta Sokorri Katolikoari buruz. Herriko etxetik dirulaguntzak dituzte, bai. Saint-Sauveurek iaz 2200 euro eskuratu zituen. Beraz, egun bozkatzen ditugun dirulaguntzez gain, herriak elkarteei 3050 euro eman die; horiek ere gaur bozkatuko ditugun*

du CCAS, concernant l'entraide Saint-Sauveur et le Secours Catholique. Ils ont bien des subventions de la commune. L'entraide Saint-Sauveur 1200 euros l'année dernière. Donc en complément des subventions que l'on vote aujourd'hui, il y a eu 3050 euros qui ont été reversés aux associations de la commune, ça vient aussi s'ajouter aux montants qu'on votera aujourd'hui. Il y aura aussi une augmentation au niveau du CCAS qui aide une petite dizaine d'associations supplémentaires. Sans le CCAS, le montant voté en 2025 était de 133 838 euros, qui sera cette année de 140 476,20 euros, soit une augmentation de 5%. Et on peut voir que, dans de nombreuses communes, c'est une variable d'ajustement pour réussir à basculer un budget. Je pense que vous lisez comme nous la presse locale. De nombreuses associations sont impactées à l'échelle communale, mais c'est une situation qui devient très préoccupante au-delà, puisque les subventions aux associations sont très largement revues à la baisse dans de nombreuses collectivités. Ensuite, c'est bizarre que cette année, tu n'as pas parlé du taux d'imposition. Voilà, mais on en parlera aussi plus tard.

Par rapport au logement social, je disais que vous aviez voté contre le PLU. C'est quand même ce PLU qui nous a permis d'augmenter significativement au cours du précédent mandat le nombre de logements sociaux. Pour rappel, on l'a doublé, on est passé de 300 à 600, ce qui a permis à la commune, pendant de nombreuses années, de ne pas avoir à payer d'amende. Cette année, on va devoir en payer, on n'a pas encore reçu le montant, donc c'est pour ça qu'on a provisionné le maximum. Il faut savoir que chaque année, en fait, il peut y avoir une déduction qui est réalisée. Voilà, il y a plusieurs programmes qui sont lancés, qui vont sortir et qui vont permettre dans les prochaines années également de le faire. Donc on a un déficit sur la commune. Et là aussi. Heureusement qu'on n'a pas suivi votre opposition au PLU, puisque c'est grâce à ce Plu qu'on peut faire des programmes. Là, il y a Atalaiaberria qui va sortir 36 logements, 100% logements sociaux. Notre Plu, qui renforce les centralités, qui densifie les centres bourgs existants, qui lutte contre l'étalement urbain et les résidences pavillonnaires, ce que vous avez dénoncé, mais c'est grâce à ça qu'on n'a pas payé d'amende pendant de nombreuses années. Donc là, il y a eu une baisse de la construction ces deux dernières années, il y a plusieurs programmes qui représentent 100 à 150 logements qui sont en train de sortir et qui nous permettront de continuer à rattraper notre retard. Quand on a pris la mairie en 2014, on était à 11%. On a rattrapé une partie du retard.

Je tiens à rappeler que sur la communauté d'agglomération Pays Basque, il n'y a que la

zenbatekoei gehitu beharko zaizkie. GEUZean ere emendatzea izanen da, beste hamar bat elkarte laguntzen baititu. GEUZa gabe, 2025ean bozkatu zenbatekoa 133 838 eurokoa zen; aurten 140 476,20 eurokoa izanen da; hots, %5eko emendatzea. Eta ikusten dugu, herri anitzetan, aurrekontuaren orekatzeko, doitzeko aldagaia izaten dela. Tokiko prentsa irakurtzen duzu, naski, guk bezala. Egungo egoerak elkarte anitzei eragiten die, eta egoera zinez kezkagarria bilakatzen ari da, elkargo anitzetan elkarteendako dirulaguntzak anitz apaltzen baitira.

Bestalde, harritzen naiz aurten ez baituzu zerga-tasa aipatu. Baina hori ere berantago aipatuko dugu.

Bizitegi sozialei dagokienez, erran dut THPren kontra bozkatu duzula. Alta, THP horri esker genuen argiki emendatu joan den agintaldian bizitegi sozialen kopurua. Oroitarazi nahi dut bikoiztu genuela, 300etik 600era pasatu ginela. Horri esker, herriak hainbat urtez ez du zigorrik ordaindu behar izan. Aurten, pagatu beharko dugu, baina zenbatekoaren berri ez dugu oraino ukan; horregatik aurreikusi dugu posible den goren. Jakin behar da urte guziz kenketa egin daitekeela. Hainbat programa abiatuak dira edo aterako dira, eta heldu diren urteetan ere hola egiteko ahalko dugu. Beraz, defizita dugu herrian. Eta hor ere, beharrik ez dugula zure THPren kontrako boza segitu, THP horri esker egiten ahal baititugu programa horiek. Atalaiaberria 56 bizitegi aterako dira, %100 bizitegi sozialak. Gure THPak zentraltasunak indartzen ditu, egungo herri barneak dentsifikatzen ditu, hiri-hedatzeari eta hiri inguruetako etxeen garapenari buru egiten die. Hori salatu duzu, baina horri esker gara libratu diru zigorrez, hainbat urtez. Beraz, hor, azken bi urteetan eraikuntza apaldu da, zenbait programa ateratzen ari dira, 100 eta 150 bizitegi artekoak, eta horiei esker beranta harrapatuko dugu. 2014an herriko etxean sartu ginelarik, %11ko heinean ginen. Beranta partez harrapatu dugu.

Oroitarazi nahi dut Euskal Hirigune Elkargoan Baiona dela SRU legeak jarri dituen %25ak betetzea kausitzen duen herri bakarra. Beraz, ez da onargarria, baina gai horretan zailtasunak badira.

**Ensemble pour Ustaritz:** Errealitatea egokitzen duzu: kontra bozkatzek ez du erran nahi THP osoaren kontra garenik. Plantan eman zenuten araudiarekin ados ginen. Zonakatzeari buruz genuen arazoa. Hori arras ongi dakizu. Etcharryri dagokionez, baduzu kopeta, informazioen erdia eman zeniguten: erran zenuten etorriko zirela, herriko gela batzuetan egoitza eman beharko zitzaizela, ez genekien non, ez genekien

commune de Bayonne qui arrive à respecter les 25% de la loi SRU. Donc ce n'est pas acceptable, mais nous sommes en difficulté sur ce point-là.

**Ensemble pour Ustaritz** : Vous adaptez la réalité, ce n'est pas parce qu'on vote contre qu'on est contre l'ensemble du PLU. On était d'accord sur la réglementation que vous avez mise en place. Le problème que l'on avait, c'était sur le zonage. Et ça, tu le sais très bien.

Sur Etcharry, c'est quand même gonflé, vous nous donnez la moitié des informations, vous nous dites, ils arrivent là, il va falloir les loger dans des salles, on ne savait pas où, on ne savait pas comment. Moi, je me posais la question, comment on pouvait enseigner dans ces conditions-là.

Derrière, il y avait un deal qui avait été fait avec Bruno Carrère et Etcharry pour récupérer la Guadeloupe, ça, on ne le savait pas, ça, on l'a su après. Donc, quand tu ne dis pas toute la vérité, effectivement, on ne peut pas voter pour.

Quand tu ne donnes pas toutes les informations, on ne peut pas voter pour et vous faites toujours la même chose, vous avez toujours agi comme ça. Sur Haltya, on a revendu quelque chose au même prix qu'on a acheté avec un portage qui a coûté cher. Donc, non, ce n'est pas une bonne opération. Je regrette.

La loi SRU, je ne comprends pas comment tu peux dire ça. Ce n'est pas le PLU qui permet ça. Le PLU, il a diminué la zone de construction. Effectivement, quand tu as le zonage de construction qui diminue, les programmes sont moins évidents. Quand tu passes à 80% voire à 100% dans certains zonages, on est pour. Mais quand tu diminues, le secteur de construction, effectivement, il y a moins de programmes. Et on le voit aujourd'hui. Il y a moins de programmes et c'est peut-être pour ça. C'est à cause de ce PLU, à cause du zonage du PLU, qu'aujourd'hui, On paye une amende. Je maintiens ça.

**UB** : Quand tu dis que ce n'est pas le PLU qui a diminué les zones constructibles, comme on l'a dit, on a évité l'étalement urbain, on a renforcé les centres bourgs existants, Et c'est ça qui permet aussi de faire des opérations collectives, avec une vision d'ensemble. Ne pas penser champignon par champignon, et aménager l'espace, faire de la coactivité. Et quand tu dis que ce n'est pas le PLU qui a permis, ça, c'est faux. C'est bien ça qui a permis de dire, on densifie, on fait des programmes collectifs à tel endroit, et on arrête justement de faire de l'étalement urbain avec beaucoup de maisons individuelles, qui augmentent de facto le

nola. Ene duda zen nola irakatsi zitekeen baldintza horietan.

Horren gibelean bazen La Guadeloupe berreskuratzeko Bruno Carrère eta Etcharryk egin zuten tratua. Hori ez genekien, gero jakin genuen. Beraz, egia guzia erraten ez baduzu, bistan da, ezin dugu alde bozkatu.

Informazio guziak ematen ez badituzu, ezin dugu alde bozkatu, eta beti egiten duzue gauza bera, beti hola jokatu duzue.

Haltyan, zerbait erositako prezio berean saldu dugu, eta eramatea garestia izan da. Beraz, ez, ez da eragiketa ona. Barka.

SRU legeari dagokionez, ez dut ulertzen nola erran dezakezun hori. Ez da THPari esker. THPak eraikitzeke eremua ttipitu du. Eraikuntza eremua ttipitzen bada, programak gero eta zailagoak dira, bistan da. Zonakatze batzuetan %80 edo %100era pasatzen bazara, alde gara. Baina eraikuntzaren sektorea ttipitzen duzularik, bistan da, programa gutiago dira. Eta hori egun ageri da. Programa gutiago dira, eta beharbada horregatik da. THParengatik, THParen zonakatzearengatik dugu egun zigorra ordaintzen. Hori atxikitzen dut.

**UB**: Erraten duzu ez dituela THPak murriztu eremu eraikigarriak, hau erantzunen dizut: erran dugun bezala, hiri hedapena saihestu dugu, dauden herri barneak indartu ditugu, eta horri esker da posible ere eragiketa kolektiboen egitea, ikuspegi orokorrarekin. Eremuz eremu pentsatzea, eta espazioaren antolatzea, elkarreragina kontuan hartuz. Erran duzu ez duela THPak ahalbidetu hori, baina oker zara. Horri esker dugu erabaki dentsifikatzea, programa kolektiboen egitea toki jakin batzuetan, eta hiriaren hedapena eta bakarkako etxe ugarien geldiaraztea, bakarkako etxeek ere bizitegien kopurua emendatzen baitute. Eraikuntzen baimentzea gelditu dugun lekuetan, hiri inguruetakoko bakarkako etxeak ziren.

**Ensemble pour Ustaritz**: Berriz ere: ez dut hori erran. Erran dut plantan eman duzuen zonakatzearekin ezin zela bizitegi gehiago eraiki herrian, bizitegi kolektiboak barne. Aldiz, araudiaren alde nintzen, ez dakit nola erran behar dudan. Eraikuntza eremua murriztu duzue, beraz, bistan da, programa gutiago dira. Besterik ez. Kontrakoa ezin da erran.

nombre de logements. Là où on a arrêté d'autoriser les constructions, c'était de la résidence pavillonnaire.

**Ensemble pour Ustaritz :** Encore une fois, je n'ai dit ça. J'ai dit que le zonage que vous avez mis en place ne permettait pas de construire plus de logements sur la commune, y compris logement collectif. Par contre, la réglementation, j'étais pour comment il faut le dire, je ne sais pas. Vous avez réduit le zonage de construction, donc effectivement, les programmes, il y en a moins. C'est tout. On ne peut pas dire l'inverse.

POUR / ALDE : 23

CONTRE / KONTRA : 6 (M. CENDRES, Mme DI COSTANZO, M. DARQUY, Mme. GUILTÇOU-LARRONDE, M. DESGROLARD, Mme. DUFOURCQ-HARISTOY)

ABSTENTIONS / ABSTENZIOAK : -

## 11- BUDGET ANNEXE 2026 - DOMAINE FUNERAIRE

Madame Idieder présente le rapport suivant,

Le budget-annexe Domaine funéraire 2026 est voté par chapitre en exploitation et en Investissement.

Au titre de la fongibilité, le conseil municipal accorde au maire une délégation pour procéder à des virements de crédits de chapitre à chapitre, au sein d'une même section, dans la limite de 7,5 % des dépenses réelles de la section. Il est précisé que Monsieur le Maire informera le conseil municipal de ces mouvements de crédits dans le cadre du relevé de décisions lors de la plus proche séance.

Le budget annexe 2026 s'équilibre comme suit :

### \* Exploitation :

Dépenses : 112 376 €  
Recettes : 112 376 €

### \* Investissement :

Dépenses : 105 931 €  
Recettes : 105 931 €

Dont un déficit d'investissement reporté de 88 471.37 € (001)

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

## 11- 2026 URTEKO AITZINKONTU-GEHIGARRIA - EHORZKETA SAILA.

Idieder andereak ondoko txostena aurkezten du,

2026ko Ehorzketa saileko aitzinkontu-gehigarria kapituluka bozkatua da ibilmoldean eta inbestizamenduan.

Suntsikortasuna dela eta, herriko kontseiluak auzapezari atal bereko kapitulu batetik bestera biramenduen egiteko ordezkaritza ematen dio, ataleko gastu errearen %7,5eko mugan. Auzapez jaunak hurrengo bilkuran erabaki-zerrendaren baitan herriko kontseiluari kreditu-mugimendu horien berri emanen diola zehaztu da

Honela orekatzen da:

### \* baliatzea:

Xahutzeak 112 376 €  
Sartzeak 112 376 €

### \* Inbestizamendua:

Xahutzeak 105 931 €  
Sartzeak 105 931 €

Honen artean erakarritako inbestizamendu defizit bat: 88 471.37 € (001)

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak, aho batez :

- **ONARTZEN DU** 2026ko ehorzketa saileko aitzinkontu-gehigarria.

- **ADOpte** le budget-annexe Domaine funéraire 2026.

## 12- FIXATION DES TAUX DES IMPOTS LOCAUX

Monsieur le Maire présente l'état 1259 comportant les bases prévisionnelles, les produits prévisionnels de référence, les allocations compensatrices et mécanismes d'équilibre des réformes fiscales.

Le taux de la taxe d'habitation, figé de 2020 à 2022, est de nouveau voté à compter de 2023. Cette taxe ne concerne plus que les résidences secondaires, les locaux meublés non affectés à l'habitation principale et, sur délibération, les logements vacants depuis plus de deux ans.

L'article 116 de la loi de finances pour 2026 a modifié le dispositif dérogatoire de majoration sans lien du taux de la THRS en faveur des communes et des EPCI à compter de 2026. Une commune dont le taux de TH est inférieur à la moyenne constatée pour cette taxe l'année précédente dans l'ensemble des communes du département, peut majorer son taux de TH sans que l'augmentation du taux soit supérieure à 10% de cette moyenne.

En conséquence, Monsieur le Maire propose de fixer les taux comme suit :

Vu les articles 1636 B *sexies* à 1636 B *undecies* et 1639 A du code général des impôts,

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

**DÉCIDE** de fixer les taux communaux pour l'année 2026 comme suit :

- taxe d'habitation (résidences secondaires) : 14.29 %
- taxe foncière sur les propriétés bâties : 29.20 %
- taxe foncière sur les propriétés non bâties : 41.32 %

**CHARGE** Monsieur le Maire

- de notifier cette décision aux services préfectoraux
- de transmettre l'état 1259 complété à la direction départementale des finances publiques, accompagné d'une copie de la présente décision.

**Ensemble pour Ustaritz** : C'est ce que je dis à chaque fois, Les impôts vont augmenter, mais le taux communal ne va pas augmenter, mais par contre, les bases augmentent et les impôts vont augmenter pour l'ensemble des Ustaritzar.

## 12- TOKIKO ZERGEN TASEN FINKATZEA

Auzapez jaunak 1259 agiria aurkeztu du. Bertan, oinarri aurreikusiak, erreferentziazko produktu aurreikusiak eta erreforma fiskalen orekatze mekanismoak eta ordainsari gisako laguntzak zehaztuak dira.

Bizitegi zergaren tasa 2020tik 2022ra izoztu zen; 2023tik goiti, berriz bozkatu behar da. Orain, zerga hori bigarren bizitegiei, bizitegi nagusia ez izateko lokal mublaturak eta, hala deliberratuz gero, bi urte baino gehiago hutsik daramaten bizitegiei baizik ez dagokie.

2024ko finantza legearen 151. artikulua bigarren bizitegien zergaren tasaren bozkatzeko arauak malgutu ditu, enpresen lur kotizazioari ezartzen zaizkion emendatzeen ereduari jarraiki. Hala, herri batean bigarren bizitegien gaineko zergaren tasa aitzineko urteko departamenduko herri guzietan batz bestekoa baino %75 baino apalagoa baldin bada, biltzar erabakitzaileak bigarren bizitegien gaineko zergaren tasa emenda dezake, batz bestekoaren %5eraino. Beraz, **UZTARITZEN**, gehieneko tasa %12.59koa da.

Ondorioz, Auzapez jaunak tasen honela finkatzea proposatu du:  
Zergen kode orokorraren 1636 B *sexies*-etik 1636 B *undecies*-erako artikulua eta 1639 A artikulua kontuan izanik,

Luzaz deliberratu ondoren, Herriko Kontseiluak, aho batez :

2026. urterako, herriko tasen honela finkatzearen **ERABAKITZEN DU**:

- bizitegi zerga (bigarren egoitzentzat): % 14.29
- eraikinen gaineko lur zerga: % 29.20
- eraiki gabeko lekuen gaineko lur zerga: % 41.32

Auzapez jaunari eginkizun hauen **EMATEN DU**:

- prefektura zerbitzuei erabaki horren berri ematea
- 1259 txosten osatua finantza publikoien departamenduko zuzendaritzari helaraztea, erabaki honen kopia batekin batean.

**Ensemble pour Ustaritz**: Aldi guzietan hori erraten dut, zergak emendatuko dira, baina herriko tasa ez da emendatuko; aldiz, oinarriak emendatzen dira eta uztaritzar guzietan zergak emendatuko dira.

13- AVANCE COMMUNALE 2026 DU BUDGET PRINCIPAL AU BUDGET ANNEXE DOMAINE FUNERAIRE.

Madame Idieder présente le rapport suivant :

Lors du vote des budgets primitifs 2026 (budget communal et budget annexe Domaine Funéraire), des crédits ont été inscrits dans chacun des budgets afin de prévoir le versement d'une avance remboursable du budget communal vers le budget Domaine Funéraire, pour un montant de 11 014 €. Cette avance a pour objet de financer, dans de meilleures conditions la création de caveaux et cases de colombarium aux cimetières de la commune.

Afin de procéder aux écritures comptables liées cette avance, il est nécessaire d'en fixer les modalités.

Vu la loi 82/213 du 2 mars 1982 relative aux droits et libertés des communes,

Vu le Code Général des Collectivités Territoriales,  
Vu la délibération du Conseil Municipal en date du 30 avril 2026 approuvant le budget primitif,

Considérant la nécessité de financer dans les meilleures conditions les opérations de création de caveaux portées dans le budget annexe dénommé « Budget annexe Domaine Funéraire »,

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **CONFIRME** le versement d'une avance remboursable du budget principal au budget annexe dénommé « Budget annexe -Domaine Funéraire » ;

- **PRECISE** que le montant de l'avance remboursable est de 11 014 € euros, inscrite au budget primitif 2026 comme suit :

- Budget principal -Dépenses -compte 27638  
- Budget annexe Domaine Funéraire -Recettes - compte 1687 ;

- **DIT** que l'avance remboursable est prévue pour une durée de 5 ans conformément au tableau d'amortissement suivant :

- 2027 : 2202€
- 2028 : 2202€
- 2029 : 2202€
- 2030 : 2202€
- 2031 : 2202€

Toutefois un remboursement anticipé partiel ou total est possible si le niveau de commercialisation des opérations le permet ou si la commune décide de

13- 2026KO AITZINKIDURA KOMUNALA AURREKONTU NAGUSITIK HILETA-ARLOKO AURREKONTU ERANSKINERA

Idieder andreak ondoko txostena aurkezten du,

2025eko aurrekontu primitiboen bozketan (Ehorzketa Arloko herriko aurrekontua eta aurrekontu erantsia), kredituak sartu ziren aurrekontu bakoitzean, herriko aurrekontutik Ehorzketa Arloko aurrekontuari ordaintzekoa litzaiokeen 11 014 €-ko abantzu bat aurreikusteko. Abantzu horren helburua da Purgu eta Arruntzako hilerrietan hilobiak baldintza hobeean finantzatzea.

Abantzu honekin lotutako kontabilitateko idazketak egiteko, beharrezkoa da horien modalitateak finkatzea.

Herrien eskubide eta askatasunei buruzko 1982ko martxoaren 2ko 82/213 legea ikusirik,  
Lurralde Elkargoen Kode Orokorra ikusirik,  
Herriko Kontseiluak 2026ko apirilaren 30ean hasierako aurrekontua onartuz hartu duen erabakia ikusirik,

"Ehorzketa arloaren aurrekontu erantsia" izenpean, aurrekontu erantsian sartutako hilobiak sortzeko lanak baldintza onenetan finantzatu behar direla kontuan harturik,

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak, aho batez :

- **BERRESTEN DU** aurrekontu nagusitik hartuz, « Aurrekontu erantsia - Ehorzketa Arloa » izeneko aurrekontu erantsiari abantzu ordaingarri bat emanen diola ;

- **ZEHAZTEN DU** itzuli beharreko abantzuaren zenbatekoa 11 014€ eurokoa dela, eta 2026ko hasierako aurrekontuan honela inskribatu dela :

- Aurrekontu nagusia - Gastuak - 27638 kontua  
- Ehorzketa Arloko aurrekontu erantsia - Irabaziak - 1687 kontua ;

- **ERRATEN DU** itzuli beharreko abantzuak 5 urteko iraupena izanen duela, amortizazio-taula honen arabera :

- 2027 : 2202€
- 2028 : 2202€
- 2029 : 2202€
- 2030 : 2202€

mobiliser sur le budget annexe des financements externes.

- 2031 : 2202€

Hala ere, ordainketa aitzinatu partziala edo osoa egin daiteke, operazioen merkaturatze-mailak horretarako aukera ematen badu edo herriko etxeak kanpoko finantzamenduen aurrekontu erantsian mobilizatzea erabakitzen badu.

#### 14- REMBOURSEMENT AU SYNDIC HIRIGOINA

Madame Idieder présente le rapport suivant :

Le syndic HIRIGOINA a été facturé et prélevé à tort par EDF en lieu et place de la commune d'UZTARITZE pour un montant de 122.12 € le 04/01/2023 au titre de la consommation en éclairage public du parking de la résidence HIRIGOINA rue HIRIBEHÈRE à UZTARITZE.

Il convient de procéder au remboursement d'un montant de 122.12 € par autorisation du conseil municipal.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **AUTORISE** le remboursement de 122.12 € au syndic HIRIGOINA.

#### 14- HIRIGOINA SINDIKUARI DIRUAREN ITZULTZEA

Idieder andereak gaia aurkeztu du:

HIRIGOINA sindikuari EDF sozietateak 122.12 € zuzenkontra fakturatu eta hartu zizkion,

UZTARITZEko herriari hartu orde, 2023/01/04an, UZTARITZEko HIRIBEHÈRE karrikako HIRIGOINA eraikineko aparkalekuko argi publikoen kontsumoa zela eta.

122.12 € horiek itzuli behar zaizkio, eta horretarako, herriko kontseiluak baimena eman behar du.

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak, aho batez :

- HIRIGOINA sindikuari 122.12 €ren itzultzeko **BAIMENA EMATEN DU.**

#### 15- REMBOURSEMENT DES FRAIS D'ETABLISSEMENT D'UN BAIL EMPHYTEOTIQUE ADMINISTRATIF AU PROFIT DE LA SOCIETE PINAQUY DANS LE CADRE DE LA MISE A DISPOSITION DE LA PARCELLE COMMUNALE AD0715

Madame Idieder présente le rapport suivant :

Vu le Code Général des Collectivités Territoriales, notamment ses articles L.2121-29 et suivants ;

Vu le Code Général de la Propriété des Personnes Publiques, notamment ses articles L.1311-2 et suivants relatifs aux baux emphytéotiques administratifs ;

Considérant que la commune est propriétaire de la parcelle AD0715 située sur son territoire ;

Considérant le projet porté par la société Pinaquy consistant en la réalisation d'un ouvrage de confortement comprenant la création d'un réseau d'eaux pluviales ainsi que le remblaiement du site ;

#### 15- PINAQUY SOZIEATEARENDAKO ADMINISTRAZIOKO ENFITEUSI ALOKAIRU KONTRATU BATEN EGITEKO GASTUEN ITZULTZEA, AD0715 HERRIKO LURSAILAREN ESKURA EMATEKO PROIEKTUAREN BAITAN

Idieder andereak gaia aurkeztu du:

Lurralde Elkargoen Kode Orokorra eta, bereziki, L.2121-29 eta ondoko artikulua kontuan izanik; Pertsona Publikoen Jabetzaren Kode Orokorra, eta bereziki administrazioko enfiteusi alokairu kontratuei buruzko L.1311-2 eta ondoko artikulua kontuan izanik;

Jakinez herria bere lurraldean dagoen AD0715 lursailaren jabe dela;

Jakinez Pinaquy sozietatearen proiektua euri uretarako sarearen sortzea eta gunearen lurkatzea barne hartzen dituen indartzeko obren egitea dela; Jakinez, obra horiek egiteko, 2025eko urriaren 29ko deliberamenduaren bitartez herriak Pinaquy

Considérant que, pour permettre la réalisation de cet ouvrage, la commune a consenti à la société Pinaquy un bail emphytéotique administratif portant sur ledit terrain par délibération en date du 29 octobre 2025 ;

Considérant que les frais liés à l'établissement de ce bail (frais notariés, frais d'actes, frais administratifs) doivent être supportés par la société Pinaquy comme prévu par l'article 19 du bail ;

Considérant que les frais administratifs liés à l'établissement de ce bail d'un montant de 403 € ont été avancés par la commune auprès de l'APGL ;

Considérant qu'il y a lieu, dans ce cadre, de prévoir le remboursement par la société Pinaquy de ces frais ;

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **APPROUVE** le principe du remboursement par la société Pinaquy à la commune des frais engagés pour l'établissement du bail emphytéotique administratif relatif à la mise à disposition du terrain communal d'un montant de 403 €.

- **PRECISE** que ce remboursement interviendra sur présentation de la facture correspondante.

- **INDIQUE** que les crédits nécessaires sont inscrits au budget communal.

-**AUTORISE** Monsieur le Maire à signer tout document afférent à cette décision.

#### 16- CREATION D'UN COMITE SOCIAL TERRITORIAL COMMUN ENTRE LA COMMUNE ET LES ETABLISSEMENTS PUBLICS RATTACHES (CCAS)

Madame Idieder présente le rapport suivant,

Il est précisé aux membres du Conseil Municipal que le Titre V du Code Général de la Fonction Publique et notamment les articles L251-1, L251-5 à L251-10 (nouvelle codification de l'article 32 de la loi n°84-53 du 26 janvier 1984 modifié par la loi n°2019-828 du 6 août 2019) et le décret n°2021-571 du 10 mai 2021 prévoient qu'un Comité Social Territorial est créé dans chaque collectivité ou établissement employant au moins cinquante agents ainsi qu'auprès de chaque centre de gestion pour les collectivités et établissements affiliés employant moins de cinquante agents.

Il peut être décidé, par délibérations concordantes des organes délibérants d'une collectivité territoriale et d'un ou plusieurs établissements publics rattachés à cette collectivité de créer un Comité Social Territorial commun compétent à l'égard des agents de la

sozietaleari lursail horrendako administrazioko enfiteusi alokairu kontratua eman ziola;

Jakinez kontratu horren ezartzeko gastuak (notario-gastuak, agiri-gastuak, administrazio-gastuak) Pinaquy sozietaateak dituela bere gain hartu behar, kontratuaren 19. artikuluari jarraiki;

Jakinez kontratu horren ezartzeko 403 €-ko gastuak herriak aitzinatu zizkiola APGL agentziari;

Jakinez, kasu honetan, Pinaquy sozietaateak herriari gastu horiek itzuli behar dizkiola;

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak, aho batez :

- Pinaquy sozietaateak herriari herriaren lursail baten eskura emateari buruzko administrazio enfiteusi alokairu kontratua kari aitzinatu 403 €ko gastuen itzultzearen printzipioaren **ONARTZEN DU**.

- Dirua dagokion faktura aurkeztu ondoan itzuliko duela **ZEHAZTEN DU**.

- Behar diren kredituak herriaren aurrekontuan pentsatuak direla **ADIERAZTEN DU**.

-Auzapez jaunari erabaki horri dagozkion agiri orenen izenpetzeko **BAIMENA EMATEN DU**.

#### 16- HERRIAREN ETA HAREN ERAKUNDE PUBLIKOEN ARTEAN (GEUZ) LURRALDEKO GIZARTE BATZORDE KOMUNAREN SORTZEA

Idieder andereak ondoko txostena aurkezten du,

Herriko kontseiluko kideei oroitarazi zaie Funtzio Publikoaren Kode Orokorraren V. Tituluko L251-1. artikulua, L251-5tik L251-10rako artikuluen (2019ko agorrilaren 6ko 2019-828 legeak aldatu 1984ko urtarrilaren 26ko 84-53 legearen 32. artikulua kodifikazio berria) eta 2021eko maiatzaren 10eko 2021-571 dekretuaren arabera, berrogeita hamar langile ala gehiago dituzten elkargo guzietan Lurraldeko Gizarte Batzordea sortu behar da, baita berrogeita hamar langile baino gutiago enplegatzen dituzten elkargo eta egituren kudeaketa zentroetan ere.

Lurralde elkargo bateko organo erabakitzaileek eta elkargo horri dagozkion egitura batek ala gehiagok batean deliberatzen badute, Lurraldeko Gizarte Batzorde komuna sortzen ahal da. Azken horrek elkargoko eta GEUZeko langileei buruzko eskumena

collectivité et du CCAS à condition que l'effectif global concerné soit au moins égal à cinquante agents.

Considérant l'intérêt de disposer d'un Comité Social Territorial commun compétent pour l'ensemble des agents de la commune d'Uztaritze et du CCAS d'Uztaritze ;

- Commune = 118 agents,
- CCAS = 2 agents,

Permettent la création d'un Comité Social Territorial commun.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **DECIDE** de La création d'un Comité Social Territorial commun compétent pour les agents de la commune d'Uztaritze et du CCAS d'Uztaritze,

- **FIXE** le Comité Social Territorial auprès de la commune d'Uztaritze et du CCAS d'Uztaritze.

#### 17- FIXATION DU NOMBRE DE REPRESENTANTS DU PERSONNEL AU COMITE SOCIAL TERRITORIAL PLACE AUPRES DE LA COMMUNE, INSTITUTION DU PARITARISME ET DECISION DU RECUEIL/DU NON-RECUEIL DE L'AVIS DES REPRESENTANTS DES COLLECTIVITES ET ETABLISSEMENTS

Madame Idieder présente le rapport suivant,

Le 10 décembre 2026 se déroulera l'élection des représentants du personnel au Comité Social Territorial.

Le Comité Social Territorial a été créé par la loi n°2019-828 du 6 août 2019 de Transformation de la Fonction Publique. Cette nouvelle instance consultative, issue de la fusion du Comité Technique et du Comité d'Hygiène, de Sécurité et des Conditions de Travail, outil du dialogue social, émet des avis sur les questions d'environnement professionnel. Elle comprend un collège des représentants du personnel et un collège des représentants de l'Administration.

Il appartient au conseil municipal de se prononcer, dans la limite de tranches fixées par la réglementation, sur le nombre de représentants titulaires du personnel qui siègeront au Comité Social Territorial de la collectivité.

du, orotara berrogeita hamar langile baldin badira gutienez.

Uztaritzeko herriko eta Uztaritzeko GEUZeko langile guzientzat eskudun litzatekeen Lurraldeko Gizarte Batzorde komun baten ukatea interesgarri litzatekeela kontuan harturik;

- Herria = 118 langile,
- GEUZ = 2 langile

Eta beraz, Lurraldeko Gizarte Batzorde komunaren sortzea ahalbidetzen dutela;

Auzapezak Uztaritzeko herriko eta Uztaritzeko GEUZeko langile guzientzat eskudun litzatekeen Lurraldeko Gizarte Batzorde komun baten sortzea proposatu du.

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak, aho batez :

- Uztaritzeko herriko eta Uztaritzeko GEUZeko langile guzientzat eskudun litzatekeen Lurraldeko Gizarte Batzorde komun baten **SORTZEN DU**,

- Uztaritzeko herriko eta Uztaritzeko GEUZeko Lurraldeko Gizarte Batzorde komunaren **FINKATZEN DU**.

#### 17- LURRALDEKO GIZARTE BATZORDEKO LANGILEEN ORDEZKARIEN KOPURUAEN FINKATZEA, PAREKOTASUNAREN FINKATZEA ETA ELKARGOETAKO ETA EGITURETAKO ORDEZKARIEN IRITZIAREN BILTZEAREN ALA EZ BILTZEAREN ERABAKITZEA

Idieder andreak ondoko txostena aurkezten du,

2026ko abenduaren 10ean, Lurraldeko Gizarte Batzordeko langileen ordezkariak hautetsiko iraganen dira.

Lurraldeko Gizarte Batzordea Funtzio Publikoaren aldatzeko 2019ko agorriaren 6ko 2019-828 legearen bitartez sortu da. Aholku instantzia berri horrek Batzorde Teknikoa eta Higienearen, Segurtasunaren eta Lan Baldintzen Batzordea bateratzen ditu. Elkarrizketa sozialerako tresna da, eta lan ingurumenari lotu gaiei buruzko iritzia ematen ditu. Langileen ordezkari talde bat eta Administrazioaren ordezkari talde bat biltzen ditu.

Herriko kontseiluari dagokio, araudiak finkatu kopuru tarteei jarraiki, Lurraldeko Gizarte Batzordean langileen zenbat ordezkari titular izanen diren erabakitzea.

Bi taldeen arteko parekidetasuna mantenduko den ala ez ere erabaki behar da. Izan ere, Lurraldeko Gizarte Batzordeari dagokionez, elkarrizketa

Il convient également de décider si le paritarisme est maintenu entre les deux collèges. La loi n° 2010-751 du 5 juillet 2010 de rénovation du dialogue social ayant supprimé l'exigence du paritarisme pour le Comité Social Territorial. Le conseil municipal doit expressément décider du maintien du paritarisme.

Enfin, le conseil municipal doit décider si, au cours des réunions du Comité Social Territorial, l'avis du collège des représentants de l'Administration sera ou non recueilli.

Vu le Code Général de la Fonction Publique, Titre V et notamment ses articles L251-1, L251-5 à L251-10, L252-8 à L252-10, L253-5 à L253-6 (nouvelle codification de la loi n°84-53 du 26 janvier 1984 portant dispositions statutaires relatives à la fonction publique territoriale et notamment ses articles 32, 32-1, 33 et 33-1),

Vu la loi n°2019-828 du 6 août 2019 de transformation de la fonction publique,

Vu le décret n°2021-571 du 10 mai 2021 relatif aux comités sociaux territoriaux des collectivités territoriales et de leurs établissements publics et notamment ses articles 4, 5, 6, 30, 31 et 89,

Vu les délibérations de la Commune d'Uztaritze et du CCAS d'Uztaritze ayant créé un Comité Social Territorial Commun,

Considérant que les organisations syndicales ont été consultées le 22 avril 2026.

Considérant que l'effectif apprécié au 1<sup>er</sup> janvier 2026 servant à déterminer le nombre de représentants titulaires du personnel est de 90 agents dont 42 % d'hommes et 58 % de femmes,

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **FIXE** à 3 le nombre de représentants titulaires du personnel, chaque titulaire ayant un suppléant ;

- **DÉCIDE** le maintien de paritarisme numérique en fixant un nombre de représentants titulaires des collectivités et établissements égal à celui des représentants du personnel titulaires (chaque titulaire a également un suppléant) ;

- **DÉCIDE** le recueil, par le comité technique, de l'avis des représentants des collectivités et établissements en relevant.

sozialaren berritzeko 2010eko uztailaren 5eko legearen arabera, Lurraldeko Gizarte Batzordean parekotasunaren izatea ez da gehiago beharrezkoa. Herriko kontseiluak parekotasunaren mantentzea argi eta garbi adierazi behar du.

Azkenik, herriko kontseiluak erabaki behar du Lurraldeko Gizarte Batzordeko bilkuretan Administrazioaren ordezkari taldearen iritzia bilduko den ala ez.

Funtzio Publikoaren Kode Orokorraren V. Titulua eta, bereziki, L251-1. artikulua, L251-5etik L251-10rako artikulua, L252-8tik L252-10erako artikulua eta L253-5etik L253-6rako artikulua kontuan izanik (lurraldeko funtzio publikoari buruzko estatutu erabakiak biltzen dituen 1984ko urtarrilaren 26ko 84-53 legearen, eta bereziki 32., 32-1., 33. eta 33-1. artikuluen kodifikazio berria);

Funtzio Publikoaren aldatzeko 2019ko agorrilaren 6ko 2019-828 legea kontuan izanik;

Lurralde elkargoen eta beren egitura publikoen gizarte batzordeei buruzko 2021eko maiatzaren 10eko 2021-571. dekretua kontuan izanik, bereziki testu horren 4., 5., 6., 30., 31. eta 89. artikulua,

Uztaritzeko herriak eta Uztaritzeko GEUZak Lurraldeko Gizarte Batzorde komun baten sortzeko hartu deliberamenduak kontuan izanik;

Erakunde sindikalak 2026ko apirilaren 22an kontsultatuak izan zirela kontuan harturik;

Jakinez 2022ko urtarrilaren 1.ean neurtu langile kopurua 90koa dela, horietatik %42 gizonak eta %58 emazteak direla eta jakinez kopuru horien arabera erabakitzen dela zenbat langileen ordezkari behar diren;

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak, aho batez :

- 3 langileen ordezkari titularreko kopurua **FINKATZEN DU**, eta titular batek ordezkari bat ukanen duela zehaztu du;

- kopuru-parekotasunaren mantentzea **ERABAKITZEN DU**; hala, elkargoen eta egituren ordezkari titularren kopurua langileen ordezkari titularrenaren parekoa izan dela adierazi du (titular bakoitzak ordezkari bat ukanen du);

- Batzorde teknikoak elkargoen eta egituren ordezkarien iritzia bilduko duela **ERABAKITZEN DU**.

## 18- PROMOTION INTERNE - CREATIONS DE POSTES

Madame Idieder présente le rapport suivant,

Plusieurs agents de la collectivité ont été inscrits sur la liste d'aptitude de la promotion interne 2026.

Il convient, dès lors, de procéder à la création des postes correspondants afin de permettre leur nomination dans leur nouveau grade à compter du 1er juin 2026.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **DECIDE** la création des postes suivants, à compter du 1er juin 2026 :

- attaché territorial, un poste à temps complet,
- rédacteur territorial, un poste à temps complet,
- agents de maîtrise, deux postes à temps non complet,

- **PRECISE** que les crédits nécessaires sont inscrits au budget primitif 2026, le tableau des effectifs sera modifié en conséquence.

## 19- AVANCEMENT DE GRADE : CRÉATIONS D'EMPLOIS

Madame Idieder présente le rapport suivant,

Vu la délibération du 29 octobre 2025 concernant l'article 49 de la loi n° 84-53 du 26 janvier 1984 modifiée donne compétence à l'organe délibérant pour fixer les taux de promotion pour l'avancement de grade, après avis du Comité Technique ; il a été proposé de retenir un taux de promotion de 100 % pour l'ensemble des cadres d'emplois pour les années 2026 à 2028.

Pour tenir compte de l'évolution des postes de travail et des missions assurées, le Maire propose au Conseil municipal la création des emplois suivants :

